

EuroMarchas 2015-ren Manifestua



Pertsonen Europaren alde, aski da kapitalaren Europa honekin!

Europar Batasuna deituriko toki honetako geroz eta persona gehiagok amaitzen dute eguna lanpostua galdurik, haien etxebizitza edo osasun-eskubideak bortxatuta ikusirik, berdintasunezko hezkuntza-sistema ala pentsio nahikorik gabe. Globalizaturiko kapitalismoak aitzaki paregabea aurkitu du finantza-krisi honetan, hiritarren eskubideak gutxiesteko eta herriei haien subiranotasun demokratikoa kentzeko.

Badakigu nor diren zapaltzaileak, badakigu dirudunek beti izan dutela botere tiraniko handia, gaur egun finantza-totalitarismo bilakatu dena, geure aurrezkiak oinarri, bankuetatik kudeatua; horrez gain, herriaren zerbitzura lan egin beharrean diruaren esanetara dauden politikariei maskara kendu diezaiekegu, Europako araudiak kapitalaren interesen baitan adostu dituztelako, herritarren ongizatean pentsatu beharrean.

- Gure ordezkariak demokrazia merkatuen menpe jarri dutenean, zera esan behar dugu: aski da!
- Troikak berez bankuei ordaintzea zegokien zor ez-legitimo honekin itotzen gaituenean, gastu sozial guztiekiko gainjarriz eta herrialde osoak, Grezia kasu, esklabutzan murgilduz, zera esan behar dugu: aski da!
- Diruaren Europak eta Euroaren akordioak hegoaldeko herrialdeoi langabezia jasangaitza eta krisia gainditzeko esfortzu guztiak mugatu eta galarazi dizkigutenean, zera esan behar dugu: aski da!
- Europako parlamentari gehienek AEB eta Europar Batasunaren arteko komertzio askeko akordioaren alde egin dutenean, nazioarteko enpresa erraldoiei instituzio demokratikoez at lan egiteko aukerak erraztuz, eta are gehiago, gobernuak tribunal berezien aurrera eramateko eskubidearekin, inolako kontrol demokratikorik gabe, merkatu askea interes orokorrari gainjarriz, zera esan behar dugu: aski da!
- Europako lurretan paradisu fiskalak dauden bitartean, pertsona aberatsei, dirudunei eta enpresei abantailak eskainiz, zerga-iruzurra eta kapital-ihesa ahalbidetuz, negozio ilunak, finantza-espekulazioa eta dirua garbitzeko aukerak emanez, bai ustelkerian dabiltzanei bai kriminal antolatuei, zera esan behar dugu: aski da!
- Gure ingurugiroa, basoak, atmosfera, ibaiak eta itsasoak hondatzen diharduten bitartean, egoera hau eteteko erabaki argi eta sendorik gabe, eta nazioarteko goi-bileretan hartzen diren akordioak behar bezala errespetatu gabe, zera esan behar dugu: aski da!

- Genero-berdintasuna ahalbidetzen duten politika efizienteak sortu eta martxan jartzen ez diren bitartean, matxismoa eta emakumeekiko biolentzia behin betiko amaituz, zera esan behar dugu: aski da!
- Gerrate, miseria eta gaixotasunetik ihesean dabiltzan pertsoneri oztopoak jartzen zaizkien bitartean (Emigrazio Direktibaren tankerako politika lotsagarriak, esaterako), Europan arrazakeria, xenofobia eta solidaritate-falta sustatuz, zera esan behar dugu: aski da!
- Ongizate soziala eta giza eskubideen gainera finantza-interesak baldin badaude, zerbitzu publikoak privatizatuz, herritarrek bezero bilakatuz eta eskubide sozialak bortxatuz (etxebizitza, ura, osasungintza, hezkuntza, dependentzia), bereziki ahulen diren pertsoneri min handia eginez, zera esan behar dugu: aski da!

Bigarren Mundu Gerraren ostean amestu genuen Europa, demokratikoa, berdintasuneko, soziala, batua eta baketsua, pikutara joan da. Gaur egun bizi dugun egoera, bai herritarrok bai herriak, etsipenezkoa da guztiz.

Gizalegezko emergentzia pairatzen ari gara, eta momentu honetan demokrazia garrantzitsuegia da merkatuen eskuetan uzteko. Gobernuak jada errenditu dira eta haien armak kapitalaren esku utzi dituzte, komunikabideek politika krudelak txalotzen dituzten bitartean. Herritar guztioi deitzen zaituztegu, bankuen diktadura honen aurka gizalegezko altxamendua egiteko. Herritarrok gutxiengoaren tirania honen aurka geure papera jokatu behar dugu behingoz, pertsonen alde egingo duen Europar Batasun bat eskatuz, eta ez kapitalaren aldekoa.

Hori guztia dela eta, gizarte mugimendu, antolakunde politiko eta sindikal ugarik Europako herrien ekintza bateratu bat prestatu dugu, EUROMARCHAS 2015 deiturikoa. Urriaren 1etik 17ra bitartean, Europako herriak Bruselasera mugituko dira, Europar Batasuneko politikak guztiz aldatu behar direla salatzeko.

Espainiar estatuan, Europar Batasuneko beste kide guztiak bezalaxe, egun horietan egingo diren ekimenetarako prestatzen ari gara. Pertsona eta entitate guztioi parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Europako herritarren batasunaren alde, kapitalaren Europaren aurka, pertsonen Europa demokratikoa, soziala, ingurumenarekiko kontzientea eta solidarioaren alde

**EUROMARCHAS 2015-n parte hartu
Urriaren 1etik 17ra, Gibraltar - Bruselas**

<http://euromarchas2015.net/>
euromarchas2015@gmail.com

**ASKI DA!, ¡BASTA!, OXI, ENOUGH
Eraiki dezagun Europa berri bat**